

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### **Ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2021eko bigarren seihilekoa— jendaurrean jartzea**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2021eko bigarren seihilekoa—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea—, hura aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2021eko irailaren 27tik azaroaren 30era artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 13an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**IÑAKI GURTUBAI ARTETXE**